

# AURREJARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

**HARTZAILEAK:** LEHEN HEZKUNTZA 5 eta 6 mailak.

**DENBORA:** 30 min.

**HELBURUAK:**

- Xaguxatarrei buruz oinarrizko ezagupenak jasotzea.
- Izarraitz mendigunean bizi diren babestutako lau xaguxatar espezieren berri izatea.

**EDUKIAK:**

- Xaguxatar espezieak, xaguxatarren bereizgarriak, ingurumenean eta gizakiarengan dituzten onurak.

**METODOLOGIA:**

- Bisitaldia egun aurretik, xaguxatarrei buruz zer dakiten jakiteko, galdetegi bat beteko dute ikasleek. Ondoren, irakasleak azalpen labur bat emango die animalia horien ezaugarriak azalduz eta ingurumenean eta gizakiarengan dituzten onurak azpimarratuz.

## Zer dakizu Xaguxatarrei buruz?



**Saia zaitez ondorengo galdereei erantzuten.**

### 1. Ugaztunak ala hegaztiak dira?

- a) Ugaztunak
- b) Hegaztiak
- c) Ez bata eta ez bestea

### 2. Zer jaten dute xaguxatarrek?

- a) Intsektuak
- b) Landareak
- c) Odola
- d) Denetik

### 3. Xaguxatarrak itsuak al dira?

- a) Bai
- b) Ez
- c) Ez dakit

### 4. Animalia arriskutsuak al dira?

- a) Bai, ilean katigatzen dira
- b) Bai, odolaz elikatzen dira
- c) Ez, ez dute kalterik egiten

### 5. Nola ehizatzen dute iluntasunean?

- a) Beraiek sortzen duten soinuen oihartzunaz baliatzen dira inguruan zer duten jakiteko
- b) Beste animaliak bezala usainaz baliatzen dira
- c) Zortzarekin, ez baita ezer ikusten

### 6. Zein dira xaguxatarren gordelekuak?

- a) Kobazuloak
- b) Etxebizitza zaharrak
- c) Aurreko biak eta, gainera, zuhaitz zaharrak, etxeetako sabaia...

### 7. Zenbat urte bizi dira?

- a) Urte bat
- b) Hiru urte
- c) Batzuek 20 urte edo gehiago

### 8. Zenbat espezie uste duzu daudela Euskal Herrian?

- a) 26
- b) 67
- c) 4

